

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

2950

740/2020 EBAZPENA, maiatzaren 28koa, Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari gerentearena, zeinaren bidez deklaritzen den Javier Amiama Ruiz jaunak, berak hala eskatuta, Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko Erakunde Sanitario Integratuko Sodupe-Güeñeseko Lehen Mailako Unitateko buruaren funtzioak utzi dituela.

Osakidetzako zuzendari nagusiarena, apirilaren 30eko 989/1998 Ebazpenaren bidez, Javier Amiama Ruiz jauna Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko Eskualdeko Sodupe-Güeñeseko Lehen Mailako Arretako unitateburuaren funtzioak esleitzen zizkion.

Ikusirik Euskadiko Antolamendu Sanitarioaren ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua, hots, Osakidetza-Servicio vasco de salud Ente Publikoaren Estatutuak ezar-tzen dituen, eta aplikatzekoak diren gainerako xedapenak aintzat hartuta, Zuzendaritza Gerentzia honek hauxe

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Javier Amiama Ruiz jaunak, berak hala eskatuta Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESiko Sodupe-Güeñeseko Lehen Mailako Arretako unitateburuaren funtzioak uztea, eta eskerrak ematea egindako lanagatik.

Bigarrena.– Ebazpen honek ondorioak izango ditu: 2020ko ekainaren 1etik aurrera.

Hirugarrena.– Interesdunari Ebazpen honen berri ematea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetzako zuzendari nagusiari, Ebazpen hau EHAAan argitaratzen den hurrengo egunetik hilabeteko epean.

Barakaldo, 2020ko maiatzaren 28a.

Ezkerralde-Enkarterri-Cruceseko ESiko zuzendari gerentea,
SANTIAGO RABANAL RETOLAZA.